

Begituizu bide hori  
suge-landareen antzera  
bere amaieragaz zer egin ez dakien hori.  
Begituizu estrata iturrian utzi eta  
otaloreak agurtzen,  
malden konkorrak laztantzeaz batera  
sekula-belarren ezina arintzen.  
Begituizu sasi-masusten hankapean olgetan,  
gaztainondoei kilikilika,  
hostoei sehaska kantuan  
txistuka dabilen haize gozoarekin.  
Galdeiozu iparrorratzik daroan aldean  
gandua esnatzen ez denerako.  
Galdeiozu ogi apurrik gorde duen  
katekorratzek min ematen diotenerako.  
Galdeiozu lagunik gura duen alboan,  
akaso, zeu zoazen lekura doa.

Gotzon Barandiaranek bide bat aipatzen du olerki honetan eta gure taldearen izenean ez ezik, udalbatza osoaren izenean eskertu nahi dizugu Amaia gurekin konpartitu duzun bidea. Konpromisoa herriaren zerbitzura, maiteak diren ametsen zerbitzura. Zure hutsunea handia da, zure oroitzapen ona bezala. Muxu bat guztion partez.